

## Zer da Ikasketa-Zerbitzua?

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa komunitateari emandako zerbitzua eta eduki, gaitasun eta baloreen ikasketa uztartzen dituen metodologia da. Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioak asmo pedagogikoak eta solidarioak elkartzen ditu.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa ikasketa eta komunitateari emandako zerbitzua proiektu bakarrean uztartzen dituen hezkuntza-proposamena da. Bertan, arazoren batekin motibatutako parte-hartzaileek inguruan ekintzak egiten dituzte, ingurua hobetzeko asmoz.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa erabilera sozialeko hezkuntza-proiektua da. Ikasketa eta zerbitzuaren arteko elkarrekintzak sendotu egiten ditu bi osagai horien efektuak. Ikasketak komunitateari emandako zerbitzua hobetzen du, bizi-kalitatean eta zuzentasunean gora egiten baitu. Zerbitzuak zentzua ematen dio ikaskuntzari, ekintza eran gauzatzen baita errealitatean.

Azken batean, Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa hezkuntza-eredu bat da, eta bere osagaien integrazioetik abiatuta hartzen du zentzua. Hauek dira, hain zuzen ere, bere osagaiak:

- **Ikasketa:** heziketa-helburu esplizitua dauka, ezagutza, trebetasun, jarrera eta balioen lorpenari lotutakoa.
- **Zerbitzu Solidarioa:** protagonisten interesa komunitatearen aldeko zerbitzura bideratzen du.
- **Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa:** ikasketa eta herritartasunaren jardun aktiboa lotzen ditu.

(ZERBIKAS)

## **Zer da haur eta nerabeen Eskubideen ikuspegi eta titulartasuna. Haurren Eskubideen Ikuspegia (HEI).**

1990. urtean, Haurren Eskubideen Hitzarmena (HEH) indarrean jarri zenetik, haur eta nerabeak babesa behar duten objektuak bezala tratatzeari utzi zioten, eredu “asistentzialista” alde batera utziz. HEH-ko paradigman, haur eta nerabeak legezko titularrak bezala aitortzen dira erakunde eta Estatuei betebeharrak gehiago jasanaraziz. HEH-ak, guraso edo estatuak haurren jabetza ez dutela dio eta arduratzeko objektu bat ez direla ere argi utzi nahi du.

Haur eta nerabeen errespetua, duintasuna, biziraupena, osasuna, garapena, parte-hartzea eta ez diskriminazioa baieztatu eta defendatu behar dira helburu nagusi bezala jarriaz, haur eta nerabeak Eskubideen eramaileak baitira. Hau lortzeko modurik hoberena hitzarmenean agertzen diren eskubide guztiak errespetatzea, zaintzea eta burutzea da. Estatuak, komunitateak, familiak eta instituzioak haur eta nerabeen Eskubideak zaintzeko eta sustatzeko ardura partekatzen dute.

Haurren Eskubideetan oinarritzen den ikuspuntutik, Hitzarmenak hurrengoa aitortzen du: titularrek eskubideak aldarrikatzeko gaitasuna dute, beraien eskubideen gauzatzean guraso, tutore edo komunitatea osatzen duten pertsonak bideratu eta zuzentzeko eskubidea dute beraien gaitasunen garapena kontutan izanik.

Ikuspuntu honek haurren gaitasunak, baliabideak eta kontaktuan edo parte hartzen duen euskarri sozial guztietan (familia, eskola, komunitatea, instituzioak eta sistema kulturalak) nabarmentzen da.

Haurren Eskubideak heziketa eta giza heziketa proiektuetan erreferentzi eta orientazio eremu bezala txertatzeak ikuspuntu irekiagoa eskatzen du. Metodologikoki, honek Haurren Eskubideetatik zuzendutako orientazioa integratu behar dela esan nahi du proiektuetako planifikazioa, inplementazioa eta ebaluazioa oinarri bezala izanik.

Proiektu-plangintzaren funtsezko printzipio bezala, umeen parte-hartzea dago. Horrela soilik iritziak eta umeen ikuspuntuak behar bezala kontuan izaten direla ziurtatu ahal izango da. Garrantzitsua da ere hurrek bere egoera analizatzea eta bere sufrimendu egoeraren ondorengo kausak zeintzuk diren ikastea. HEI-ak haur eta nerabeetako ahalduntze sozial eta politikoko prozesuetan laguntzen du.

## Qué es Aprendizaje-Servicio?

Aprendizaje y Servicio Solidario (AySS) es una metodología que integra el servicio a la comunidad con el aprendizaje de contenidos, habilidades y valores. El AySS funde intencionalidad pedagógica e intencionalidad solidaria.

Aprendizaje y Servicio Solidario es una propuesta educativa que combina aprendizaje y servicio a la comunidad en un mismo proyecto. En él, los participantes motivados hacia determinada problemática actúan sobre el entorno con intención de mejorarlo.

Aprendizaje y Servicio Solidario es un proyecto educativo con utilidad social. La interacción entre aprendizaje y servicio intensifica los efectos de ambos. El aprendizaje mejora el servicio a la comunidad, que gana en calidad de vida y en equidad. El servicio da sentido al aprendizaje, al permitir que se transfiera a la realidad en forma de acción.

Aprendizaje y Servicio Solidario es, en definitiva, un modelo educativo que adquiere sentido a partir de la integración de sus componentes:

- **Aprendizaje:** tiene una intencionalidad educativa explícita, vinculada a la adquisición de conocimientos, habilidades, actitudes y valores.
- **Servicio Solidario:** moviliza el interés de sus protagonistas hacia un servicio a la comunidad.
- **Aprendizaje y Servicio Solidario:** vincula el aprendizaje al ejercicio de la ciudadanía activa.

(ZERBIKAS)

## **Qué es el enfoque de derechos y la titularidad de derechos de los niños, niñas y adolescentes. EDN.**

La entrada en vigor de la CDN en 1990 rompe con un modelo de corte “tutelar” o “asistencialista” que contemplaba a los niños, niñas y adolescentes (NNA) como un objeto que merecía protección. El paradigma CDN, reconoce a los NNA como legítimos titulares —sujetos de derecho— lo que conlleva numerosas obligaciones para los Estados y organizaciones. La CDN deja en claro que cada niño o niña no es propiedad de los padres ni del Estado, ni un simple objeto de preocupación.

El respeto de la dignidad, la vida, la supervivencia, el bienestar, la salud, el desarrollo, la participación y la no discriminación de NNA como portadores de derechos debe afirmarse y defenderse como objetivo primordial. La mejor forma de lograrlo es respetar, proteger y hacer efectivos todos los derechos plasmados en la Convención. El Estado, la comunidad, las familias y las instituciones comparten la responsabilidad de proteger y promover los derechos de los niños, niñas y adolescentes.

Desde un enfoque basado en los derechos de la infancia, la Convención reconoce, la capacidad de los titulares de reivindicarlos, tienen derecho a ser orientados y guiados en el ejercicio de sus derechos por las personas que les tutelan, sus padres y madres y las personas que conforman la comunidad, de modo acorde con la evolución de sus facultades.

Este enfoque pone el énfasis en las capacidades y recursos del niño y en todos los apoyos sociales de lo que forma parte o está en contacto, entre otros: la familia, la escuela, la comunidad, las instituciones, y los sistemas culturales.

Fundamentalmente, la inclusión de los Derechos del Niño como marco de orientación y de referencia en los proyectos educativos y socioeducativos, exige una apertura de perspectivas. Metodológicamente, esto significa que tiene que ser integrada una orientación desde los Derechos del Niño como fundamento para la planificación, la implementación y la evaluación de proyectos.

Como un principio fundamental de la planificación de proyectos, está la participación de los niños. Sólo así podrá asegurarse que las opiniones y los puntos de vista de los niños se tengan debidamente en cuenta. Igualmente importante es que los niños aprendan a analizar su situación y cuáles son las causas tras su situación de sufrimiento. El EDN ayuda en los procesos de empoderamiento social y político de NNA.